

Ordizian, 2011ko ekainaren 8an, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen UDALEKO OSOKO BILKURA, **EZ-OHIKO DEIALDIAN**, honakoak bertaratu zirelarik

**BERTARATUAK:**

**BATZORDEBURUA:** Jose Miguel Santamaría Ezeiza jauna

**BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:**

Alejandra Iturrioz Unzueta andrea	PNV taldea
Jon Txurruka Etxezarreta jauna	PNV taldea
Belén Maiza Urrestarazu andrea	EA Taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE (PSOE) taldea
Jose J.Lopez Fernandez jauna	PSE/EE (PSOE) taldea
Carlos Gonzalez Astiz jauna	EB-Berdeak/Aralar taldea
Iñigo Manrique Cía jauna	PP taldea

**BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK :**

Miren Auzmendi Urkiola andrea	PNV taldea
Iban Asenjo Garde jauna	EA Taldea
Mónica Marañón Basarte andrea	PSE/EE (PSOE) taldea
Mikel Leunda Semperena jauna	EB-Berdeak/Aralar taldea

**BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA:**


Ana Urkizu Kerejeta andrea

**KONTUHARTZAILEA:**

Jose Luis Aranburu Otegi Jauna

**ITZULTZAILEA:**

**BERTARATUAK ETA EZIN ETORRIAK**



## **AZTERTUTAKO GAIAK**

### **EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:**

- 1.- 2010ko Kontu Orokorrak onartzea.  
.....**38.orr**
- .
- 2.-2011ko Aurrekontuetan 2010eko aurrekontuetako gastuak sartzea.  
.....**38.orr**
- .
- 3.- Ordiziako Udalaren euskararen Erabilera Plana onartzea.  
.....**38.orr.**
- 4.- Borondatezko lankideentzako diru-laguntzak.  
.....**38.orr**
- .
- 5.- Zabale Baserriko dorreko lanetarako EIOZen hobaria.  
.....**38.orr**
- .


### **GORABEHERAK**

### **ORDUTEGIA:**

**HASIERA ORDUA: 18,45 h**

**BUKAERA ORDUA: 19,15 h**





Batzordea hasi baino lehen, Gonzalez jaunak bere izenean eta Mikel Leunda koalizioko kidearen izenean haserrea adierazi du azkeneko bi osoko bilkurak arratsaldez egin direlako, eta Mikel Leunda legealdi guztian zehar eta bera legealdian daraman denboran hori bera eskatzen aritu direlako, osoko bilkurak arratsaldetan izatea.

Jarraian, Alkate jaunak azaldu du ondorengo akordioak onartu behar direla ez-ohiko bilkuran, arrazoi hauengatik:

- 1.- 2010eko Kontu Orokorra onartzea, Udalbatza honek aztertu dituelako eta kontu horiek onartu dituelako. Logikoena da Udalbatza honek onartzea.
- 7.-2010eko gastuak 2011n sartzea.
- 3.- Ordiziako Udalaren euskararen Erabilera Plana onartzea.
- 4.- Borondatezko lankideentzako diru-laguntzak.
- 5.- Zabale Baserriko dorreko lanetarako EIOZen hobaria.

Azkeneko lau puntu hauek ekarri dira, orain onartzen ez badira, irailera arte ez direlako aztertuko.

#### Presazko izaera bozkatzea.

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 8 (EAJ/PNV 3, EA 1, PSE-EE (PSOE) 2, PP 1, EB/Aralar 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

**Ondorioz, Alkateak aurkeztutako gaien presazko izaera onartutzat eman du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

#### **1.- 2010ko Kontu Orokorrak onartzea.**

##### Proposamena


Kontuen Batzorde Bereziak, 2011eko maiatzaren 16n egindako bilkuran, aldeko irizpena eman zion 2010eko Aurrekontuaren Kontu Orokorrari.

Aldeko txostena jendaurrean egon da ikusgai, 2011ko maiatzaren 19ko GAOko 94.alean, eta ez da inolako erreklamaziorik edo iradokizunik jaso; beraz, aipatu iragarkian esaten den bezala, hasierako txosten hori behin betiko bihurtuko da.

Gipuzkoako Toki Entitateetako Aurrekontuen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63.4 artikulua aplikatzeko, Osoko Bilkuran aurkezten da honakoa onartzeko

AKORDIORAKO PROIEKTUA

**2010eko Aurrekontuaren Kontu Orokorra onartzea**



Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

### Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: Bat ere ez.

### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 8 (EAJ/PNV 3, EA 1, PSE-EE (PSOE) 2, PP 1, EB/Aralar 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako bigarren puntuaren berri eman du:

## **2.-2011ko Aurrekontuetan 2010eko aurrekontuetako gastuak sartzea.**

### Proposamena

2011ko martxoaren 25ean egindako osoko bilkuran 2010eko gastuak 2011ko aurrekontuetan sartzea onartu zen, guztira 94.443,19 euro.

Duela gutxi ordaindu gabeko 2010eko faktura bat azaldu da, 17.105,94 eurokoa, Igeriketa Lantzen SLk Majori Kiroldegian TEPE ipintzeko lanei dagokiena. .

Ezin izan da gaia Osoko Bilkurarako Gaien Batzordean aztertu.


Diruzaintzako soberakina 52.664,35 €koa da.

### AKORDIORAKO PROIEKTUA

**2011 urteko Aurrekontuetan 2010 urteko gastuak sartzea, 17.105,94 euroko zenbatekoarekin.**

**Kreditu gehigarrien espedientea onartzea 2011ko aurrekontuetan 17.105,94 euroko zenbatekoarekin aipatutako gastuen inkorporazioa neurri batean finantzatzeko.**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila



### Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Kontu-hartzaile jauna

Kontu-hartzaile jaunak azaldu du 2010eko bi gastu daudela 2011ko aurrekontuan sartzeko:

- 1.- Majori kiroldegiko TEPE 17.105,94 €koa.
- 2.- Txakel enpresaren faktura 3.459,75 €koa, "Ordizia Berria" dossierrari dagokiona.

Lehenengoari dagokionez, adierazi du 2010eko abenduan txosten bat egin zuela eta bertan aurrekontu krediturik ez zegoela eta gastua 2011ko aurrekontuan sartu behar zela idatzi zuela.

Bigarrenari dagokionez, 2011ko urtarrilaren 31n ere txosten bat egin zuela azaldu du, 2011ko aurrekontuan sartzeko beharraz eta hasierako aurrekontuarekin alderatuta gastua hazi izanaren justifikazioarekin.

#### Alkate jn.

Alkate jaunak adierazi du berak bideratu duen gai bat dela eta faktura ordaindua zegoela uste zuela. Horrekin batera esan du Gobernu Batzordean honen berri eman izanaren susmoa duela.

#### Maiza and.

Maiza andreak esan dio horren berri orain izan duela lehenengo aldiz.

#### Kontu-hartzaile jaunak

Kontu-hartzaile jaunak soluzio gisa aurrekontu kreditu bat prestatu daitekeela esan du, ondoren enpresaren justifikazioa aztertu eta gero ordaindu behar den edo ez erabakitzea egokia izan daiteke.

### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 8 (EAJ/PNV 3, EA 1, PSE-EE (PSOE) 2, PP 1, EB/Aralar 1)


Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**

.....

Horrez gain ordaindu beharreko beste zenbait faktura daudela jakinarazi du: 1.- Gurutze Gorriarekin 2010eko hitzarmena, etorkinen inguruan aholkularitza emateko, 3000 € guztira.



2.- LKS Ingenieriararen faktura, "Oiangualde" 30 HIEko P1 azpilursailaren balorazioa egiteagatik. 4.130.-€ko zenbatekoa.

3.- Udalak Jakintza Dantza taldeak sortutako energia eta garbitasun gastuen aldea ordaintzea.

Aurrenekoari dagokionez, kontu-hartzaile jaunak bilera egingo du bihar Dubreuil jaunarekin Goiekiri egindako ordainketak aztertzeko etorkinen zerbitzuaren inguruan eta ondoren hartuko da erabakia.

Bigarrenari dagokionez, aurrekontu partida prestatu eta eremuko Jabeen Batzordean aztertu gastua guztien artean banatzearen arrazoia.

Eta hirugarrenari dagokionez, kopuru zehatzak izatean egingo da ordainketa.

#### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 8 (EAJ/PNV 3, EA 1, PSE-EE (PSOE) 2, PP 1, EB/Aralar 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**

.....

Bukatzeko, Eguneko Zentrorako eta Jubilatuen Etxerako Larrialdi Planik ez izateaz hitz egin da, eta hori prestatzeko premiaz hitz egin da.

Aurrekontu partida prestatzea erabaki da.

#### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 8 (EAJ/PNV 3, EA 1, PSE-EE (PSOE) 2, PP 1, EB/Aralar 1)

Kontrako botoak: 0


Abstentzia: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako hirugarren puntuaren berri eman du:

**3.- Ordiziako Udalaren euskararen Erabilera Plana onartzea.**



## Proposamena

El Ayuntamiento de Ordizia ha diseñado el Plan de Uso interno del euskera del IV Periodo de Planificación. Se aprobó la propuesta en la delegación de Euskera y Educación del 16 de junio del 2010 y se presentó y aprobó en la Comisión de Normalización del Uso (ENBA) del 6 de octubre del 2010.

Después de recibir la aprobación de la Viceconsejería de Política Lingüística, se propone el siguiente

### PROYECTO DE ACUERDO

#### **Aprobar el Plan de Uso del Euskera del Ayuntamiento de Ordizia.**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

## Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

### Maiza and.

La Sra.Maiza explica que el Ayuntamiento de Ordizia ha diseñado el **Plan** de Uso interno del Euskera del IV Periodo de Planificación.Maiza andreak azaldu du Ordiziako Udalak IV. Plangintzaldirako Udaleko Erabilera Plana diseinatu duela.

Proposamena Euskara eta Hezkuntza delegazioan onartu zen 2010eko ekainaren 16an eta 2010eko urriaren 6ko Erabilera normalizatzeko Batzordean (ENBA) aurkeztu eta onartu zen.

Diru-laguntzak jasotzeko onartzea komeni dela azaldu du.

## Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 8 (EAJ/PNV 3, EA 1, PSE-EE (PSOE) 2, PP 1, EB/Aralar 1)

Kontrako botoak: 0


Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako laugarren puntuaren berri eman du:

#### **4.- Borondatezko lankideentzako diru-laguntzak.**



### Proposamena

Ipar-Hegoa kooperazio programetan parte hartzeagatik Ordiziako gazteei ematen zaizkien diru-laguntzak arautzen dituen araudia jarraituz eta 2011 urteko ekitaldiari dagokion deialdia egin ondoren,

Ondorengoa onartzea proposatzen da:

#### AKORDIO PROIEKTUA

**NEREA GARATE ARAMBURU (Ordizia,1989) ordiziar kooperatzaile gazteari 1.311 euroko diru-laguntza ematea onartzea, kooperatzaile gisa Perura egingo duen bidaia ordaintzeko.**

**NEREA GARATEk Peruko “Casa Hogar Hatun Songo” proiektuan lan egiten du, etxean jasotzen dituzten umeekin uztaila eta abuztuan zehar, HATUN SONQO tokiko elkartearen bitartez.**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

### Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: Bat ere ez.

### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 8 (EAJ/PNV 3, EA 1, PSE-EE (PSOE) 2, PP 1, EB/Aralar 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**




Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako bosgarren puntuaren berri eman du:

### **5.- Zabale Baserriko dorreko lanetarako EIOZen hobaria.**

### Proposamena

Eraikuntza, Instalazio eta Obren Zergak arautzen dituen Ordenantza Fiskalaren berri eman da, bere 8-1 artikuluan “interes bereziko edo udal erabilerakoak” diren obra, instalazio edo eraikuntzetan kuotaren %95 arteko hobaria finkatzen du, horrela izendatzeko arrazoiak baldin badaude, enplegu sustapenak, egoera sozialak, kultur egoerak edo egoera historiko artistikoak arrazoitzen badu.





Zabale Baserriko jabeekideen eskaeraren berri eman da, EIOZen %95eko hobaria aplikatzeko, 2008ko abuztuan izandako sutearen ondorioz egindako erreabilitazio obrentzako.

Eraikuntza, Instalazio eta Obren Zergaren uztailaren 5eko 15/1989 Foru Arauaren 5.1.a) artikulua araberak, Tokiko Zerga Sistema berritzeko martxoaren 19ko 4/2003 Foru Arauak aldatuta, Osoko Bilkurari dagokio hobaria aplikatzeko obren interes edo erabilera publikoa izendatzea.

Aipatutako baserria Santiago bidearen ondoan dago, Monumentu Maltzo kategorian kultur-ondare gisa izendatua dago, eta beraz, aipatutako baserriak ezaugarri historiko artistiko bereziak ditu. Hori dela eta udal intereseko eraikin izendatzen da. Hala ere, hobaria suteak kaltetu zuen dorrean egindako obretarako aplikatzea proposatzen da.

Hori ikusita, honakoa proposatzen da:

#### AKORDIORAKO PROIEKTUA

**Zabale Baserriko Jabeek egindako obrak interes bereziko obra gisa onartzea, dorreko obrei dagokienez.**

**Aipatutako obretan Eraikuntza, Obra eta Instalazioen Zergan %95eko hobaria aplikatzea.**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

#### Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: Bat ere ez.

#### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 8 (EAJ/PNV 3, EA 1, PSE-EE (PSOE) 2, PP 1, EB/Aralar 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, behin-behineko idazkariak egiaztatzen dut.